



txi kitto!

EUSKARAREN LORATEGIA EUSKARAREN EGUNEAN





Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Maider Aranberri,
Ana Aizpurua eta Eibarko
ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Maider Aranberri, Ainhoa
Luz eta Ana Aizpurua.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



txis teak

- ✓ - Maite! Zer oparituko didazu nire urtebetetzean?
- Ikusten duzu han dagoen autoa?
- Baiiiiiii
- Ba kolore bereko irabiagailu bat.



Matias Negra

- ✓ - Zer esaten dio jaguar batek beste bati?
- Jaguar you?

Eltxo batek gurasoei:

- Joan naiteke zinemara?
- Bai, baina kontuz txalo egiten dutenean.



Maider Perez

- ✓ Halloween-en hain ondo mozorratu nintzen, nire txakurrak WAW! esan zidala.



Markel Ruiz



- ✓ - Zer esaten dio zuhaitz batek beste bati?
- Zer gertatzen da, "tronko"!

Maider Urizar

Taxis Peak



✓ Gizon bat hain zen altua, jogurta heste meharrera heldu orduko kadukatu egiten zitzaiola.

Ane Ajuriagerra



✓ Oso gizon zatar batek amari:
- Ama, neskalguna aurkitu dut!

- Ba orduan laga ezazu aurkitu duzun lekuan, beste norbaitena izango da-eta.

Jakobe Urzainki



✓ - Aizu, etorri hona! Pokemon bat dago eserlekuan!!
- Mesedez, ez iraindu nire ama!

Paul Lopez



✓ - Zer esaten dio tornado batek Aitorri?
- Aitor-nado

Aitor Beorlegi



✓ Harri batek besteari:
- Zein bizitza gogorra...

Endika Sanchez




✓ -Nola egiten dute doministiku tomateek?
- KETXUP!!

Gaizka Divasson



Denborapasak

Labirintoa



Fatima eta Iker

Hizki-zopa

Hilabeteak

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| O | T | S | A | I | L | A | I | N | E |
| M | I | T | X | Z | A | N | H | U | K |
| E | I | A | M | A | I | A | T | Z | A |
| U | S | A | B | E | N | D | U | A | I |
| R | U | H | I | N | F | T | Z | O | N |
| R | U | E | M | A | R | T | X | O | A |
| I | E | I | F | S | O | U | X | A | B |
| A | Z | A | R | O | A | N | H | F | F |
| B | U | R | F | P | F | N | I | A | U |
| U | R | T | A | R | R | I | L | A | R |

Mohamed eta Wissal

Hizki-zopa

Eguraldia

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | Z | T | I | A | K | E | D | A | T |
| U | A | A | X | L | F | E | U | X | U |
| S | R | E | Q | A | J | C | I | X | Z |
| T | R | Z | L | I | K | N | T | M | T |
| I | U | E | U | N | G | Q | R | F | I |
| E | L | H | D | O | R | Z | U | R | K |
| D | E | K | R | T | A | Q | M | E | Z |
| O | M | R | M | U | B | A | O | S | U |
| H | A | U | D | T | D | Q | I | K | G |
| S | A | R | R | A | O | I | A | O | E |

- arraoia
- eguzkitzu
- ekaitza
- elurra
- fresko
- hezea
- hodeitsu
- lainotuta
- trumoia
- txingorra

Sabrina eta Hajart



AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **NORA LLERA** izan da. Argazkian duzue saria jasotzen. Liburua eta Coliseoan antzerkia ikusteko sarrerak eraman ditu Norak etxera. Zorionak!

7 desberdintasunak




**BIDALI ERANTZUNAK URTARRILAK 5 BAINO LEHEN.
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA. Urkizu 11. Eibar.**

Izen-abizena

AdinaTel.....


Denborapasak

Lotu zenbakiak



Yomaira eta Itsaso

Labirintoa




Ane eta Ixone

Desberdintasunak



Salsabil eta Jon



IZENA

OLENTZERO

ABIZENA

?

JAIOTERRIA

EUSKAL HERRIAN

JAIOTEGUNA

Buff...

- **Uda ala negua?** Negua beti!
- **Itsasoa ala mendia?** Mendia, zalantza barik!
- **Zure ametsetako oporrak, non?** Euskal Herriko edozein basotan.
- **Kolore bat?** Beltza, ikatzaren kolorea.
- **Zenbaki bat?** 6.543.679
- **Jatekorik gustukuena?** Kapoia.
- **Gutxien gustatzen zaizuna?** Ezer ez.
- **Miresten duzun norbait?** Amatxo, amama, amona, amatxi... guzti guztiak!
- **Nola dago mundua?** Ez ondo. Ilusioa behintzat ez dugu sekula galdu behar!

- **Zer 3 gauza eramango zenituzke irla batera?** Irla batera? Beroa egingo du gainera! Ba... bainujantzia, toalla eta kapoia.
- **Birziklatzen duzu?** Jakina baietz, den-dena! Eta zuek ere gauza bera egin, e?
- **Euskara osasuntsu dago?** Hobe daiteke.
- **Zer egin bultzatzeko?** Erabili eta erabili, gelditu barik, edozein leku eta momentutan, nik zurekin, zuk nirekin, amatxo, aitatxo, izena, osaba, anai-arreba, dendari, kirolari, irakasleekin...
- **Zerk pozten zaitu?** Umeak alai ikusteak.
- **Abesti bat?** Horra Mari Domingi...

- **Zelan portatu dira aurten Eibarko umeak?** Umm... utzi pentsatzen... ZORAGARRI! Bihurrikeri bat edo beste egin dute, baina oso txintxo portatu dira.
- **Beraz...?** Bai, bai, egon lasai, opariak banatzera joango naiz-eta zuen etxeetara.
- **Zer utziko dizugu etxera zatozenerako?** Ardo pixkat eta gailetak. Pantxikarentzat esnea eta azenarioa, eta Mari Domingiri bonboiak izugarri gustatzen zaizkio.
- **Opariak egin ala jaso?** Kar, kar, kar...

**OLEN-
TZERO**

3, 2, 1... badatoz Olentzero eta Mari Domingi, Pantxika astoaz lagundurik, Euskal Herriko etxe guztietara, eta jakina, baita Eibarrera ere. Txintxo portatu zarete? Bai? Ba orduan ondo merezitako opariak jasoko dituzue, seguru baietz!

Euskararen Eguneko lorategia lorez jantzi genuen

Ia 4.000 lore egin genituen herrian, horietako gehienak zuek, ikastetxean egin zenituzten, eta, neurri handi batean, beraz, zuen lan handiari esker osatu genuen Euskararen Lorategia deitu genion horma-irudia. Abenduaren 3an ospatzen da Euskararen Nazioarteko Eguna, baina Eibarren bezperan egin genituen ospakizunetako asko. Goizean hasita eguerdira arte, Mintzodromoan jardun zuten berbetan herriko ikasleek, eta arratsaldean 6 metroko luzerako horma-irudia lorez betetzen hasi ginen. “Euskeria erein, zaindu, emon” goiburua zuen murala berehala bete genuen, eta ondoren, “Loretxo” kantuen laguntzarekin, Txaltxa Zelain jarri genuen.

Hurrengo egunean, zapatua, “Andonik mugitzen nau” erromeriarekin primeran pasa zuten ume zein helduek Untzagako karpan.



Ikastetxeetan ere ospatu duzue Euskararen Eguna. Hemen dituzue bertan ateratako hainbat argazki.

... eta ez ahaztu, euskera ez dela egun bateko kontua, urteko 365 egunetan hitz egin behar dugu eus-



Urkizu ikastetxea



Amaña ikastetxea



San Andres ikastetxea



La Salle ikastetxea



J.A. Mogel Ikastola



Arrateko Andra Mari ikastetxea



ARRATEKO ANDRA MARI ikastetxetik, kaixo lagunok! Hemen gaude, Gaztaiñerre, San Andres eta Euskararen Eguna ospatu berri. Ekintza mordo bat izan ditugu azkeneko asteotan eta guztiak ospatu ditugu primeran. Horrez gain, abenduan, LHko 1., 3. eta 5. mailako ikasleek Baikarako tailerrak egin dituzte, jolasean erronkei aurre egiten, elkar onartzen eta taldea dinamizatzen jardun zuten. Eta nola ez, gabonetako oporrak hartu orduko, Santo Tomas egunean txistorra jango dugu. Eta azkeneko egunean, abenduaren 23an, Olentzeroren bisita eta kalejira izango ditugu auzoan zehar gabon-kantak abestuz. Argazkian 6. mailako ikasleak Goazen-eko aktoreekin gure eskolako aretoan.



LA SALLEko bigarren mailako ikasleak Arotz-Enean egon ziren eta Margarita izeneko behi baten istorioa ezagutu zuten, beste hainbat ekintzaren artean. Azaroaren 14an Gaztainerre ospatu genuen eta

ikasitako olerkitxo bat bota ondoren, bakoitzari kukurutxu bana banatu eta gaztaina mordoia jan genituen. San Andres eguna ere ospatu genuen, primerako azoka jarri, txorizo bokata jan eta dantzan aritu ginen. Egun alaia izan genuen!



ITURBURUko 4. mailakoak Arotze-Enean. Etxarri-Larraunen dagoen ingurumen-eskolan igaro dituzte 4. mailakoek bi egun. Bertan, naturaz gozatzeko aukera izan dute, hainbat ekintza, tailer eta behaketa egin eta gero. Argazkian neska-mutil guztiak. A zelako koadrila!!



URKIZUko eskolakoek azaroaren 29an, urtero bezala, San Andres eguna ospatu genuen, gurasoei euskal kanten emanaldi bat eman eta gurekin mokadutxo bat jateko aukera emanaz. Horrez gain, 6. mailakoek martxan jarrita daukaten madalena tallerrean ekoiztutako produktuak salgai jarri zituzten, arrakasta handiarekin.



AMAÑA ikastetxean, azaroak 25, "Stop, erasorik ez!" lemapean ospatu genuen. Haur eta lehen hezkuntzako ikasleok ikastetxean ematen diren ohiko arazoak jasotzen dituen bideo bat grabatu genuen eta ondoren egoera berdinak baina jokabide egokia erakutsiz. Arratsaldean familiekin batera bideo hori ikusi genuen eta bertan islatzen diren egoerez hitz egiteko aukera izan genuen. Ondoren gela bakoitzak bere goiburua asmatu zuen eta familien laguntzarekin hizkuntza ezberdinetan idatzi genituen. Azkenik, kartulinekin esku moreak marraztu eta moztu genituen patioan hezkuntza komunitate guztiarekin argazkia ateratzeko eta ekitaldiari amaiera emateko.



ELURREZKO PANPINAK

Gabonak badatozela-eta, hona hemen etxea apaintzeko ideia batzuk.

MATERIALA

- ✓ Galtzerdi txuriak
- ✓ Arroza
- ✓ Tela zatiak
- ✓ Botoiak
- ✓ Bolita txikiak
- ✓ Haria



PAUSOAK

- 1.- Moztu galtzerdiaren mutur bat (oinaren punta) eta lotu beste aldean hariarekin.
- 2.- Bete ezazu arrozarekin itxura biribila emanaz, lotu berriro galtzerdia eta bete arrozez bola txikiena.
- 3.- Itsasi begiak eta sudurra, tela zatiarekin bufanda egin, eta moztutako galtzerdi zatiarekin kapela egin dezakezue.

Ti-ta!

GABONETAKO PINUTXOAK

Etxean gabonetako pinua jartzeko beste modu bat duzue honakoa. Mendan pinaburuak bildu. Margo berdearekin margotu, eta nahi izanez gero, margo txuriarekin puntatxoak margotu. Apaindu ere egin dezakezue, koloretako bolak margotu, puntan izarrak jarri... Loreontzi batean sartu eta listo! Gabonetako pinu dotorea.



FRUTA-GELATINA

Laster datoz gabonak eta horrekin batera otordu oparoak ere bai, zenbat jaten dugun egun hauetan, ezta? Jateko guzti hori apur bat arintzeko, hona hemen postre arin, fresko eta gozoa. Guk osagai batzuk jarri ditugu baina nahi dituzuenak erabil ditza-kezue.



OSAGIAK (6 LAGUNENTZAT):

- ✓ Limoizko gelatina-sobre bat
- ✓ Melokotoi 1
- ✓ Mango 1
- ✓ 2 mandarina
- ✓ Kiwi 1
- ✓ 3 ur-taza irakin



PAUSOAK

- 1.- Fruta zuritu eta zati txikietan zatitu; utzi fruta plater batean.
- 2.- Bota gelatina 2 ur-taza irakinetan eta ondo nahastu erabat desegin arte.
- 3.- Nahastura horri gehitu baso bat ur hotz.
- 4.- Frutak gehitu nahasturari.
- 5.- Ontzi batean sartu dena eta utzi hozkailuan 6-7 ordu.

SUSHISANDWICHA



Errezeta honetan edozein osagai erabil dezakezue, gozoa zein gazia. Adibide moduan hauxe: moldeko ogiari kendu ertzak eta botila batekin ondo lautu. Gazta-krema igurtzi, edo pateaa, eta gehitu, adibidez, txaka-makiltxoak, azenarioa edo kalabazina... nahi duzuen. Gozoa nahi duzuela? Marmelada erabil dezakezue, fruta zatitxoekin...

✓ Abenduak 26, astelehena

Marikixkur eta hiru hartzak antzerkia. Coliseon 17:00etan. 5€.



✓ ASTELENA GABONETAKO HAUR PARKEA Astelena frontoian

2-12 urte bitarteko umeentzako Gabonetako parkea.



Abenduak 17, 26, 27, 29 eta 30: 11:00-14:00 / 16:30-20:30

Abenduak 31: 11:00-14:00

Urtarrilak 2, 3 eta 4: 11:00-14:00 / 16:30-20:30

Sarrera: 3€ edo doan Eibar Merkatal Gune Irekiaren bonoarekin.

✓ OLENTZEROREN BUZOIA

Abenduaren 9tik 23ra. Pegora eta Portalean



✓ OLENTZERO: Abenduak 24

11:30ean: Zatoz Olentzerorekin abestera! Kalejira Urkizutik hasita.



12:30etik aurrera: Olentzero udaletxean egongo da umeekin azken eskutitzak jasotzeko.



✓ ERREGE MAGOAK

Abenduak 28:

09:00-12:30 udaletxeko patioan. Ipurua Kiroldegian Dantza ikuskizuna ikusteko tiketetan banaketa.



Urtarrilak 5:

17:00: Dantza ikuskizuna Ipurua kiroldegian.

19:00: Errege Magoen kabalgata Untzagatik hasita. Amaieran azkeneko eskutitzak jasoko dituzte udaletxean.



✓ Urtarrilak 3

Magiaren lapurra antzerkia. 17:00etan Coliseon. 5€.



AITORREK BI AMA DITU (5-7 urte)

Gure gizartean gero eta normalagoa den egoera bat kontatzen zaigu: ume batek aita eta ama eduki beharrean, bi ama ditu eta horrek herri txiki batean dakartzkion gorabeherak.



ATZERAKA NABIL (8-11 urte)

Gaur goizean, nire bizitzako erabakirik inportanteena hartu dut: hemendik aurrera atzeraka ibiliko naiz. Orain arte aitak agindu bezala ibili naiz beti. –Ibai, aurrera begiratzuz gero- esaten dit aitak-, ez duzu zakur-kakarik zapalduko, ez duzu farolarik joko eta, batez ere, ez dizkiozu postariari gutunak lurrera botako.




AGATHA MISTERY: ESKOZIAKO ERREGEAREN EZPATA (10 urtetik aurrera)

Egundoko sena du eta detektibea izan nahi du. Munduan zehar ibili ohi da bere lehengusu Larry baldarrarekin, etxezain leialarekin eta Watson katuarekin, misteriorik korapilatsuenak argitzeko.



IZARREN HAUTSA (5-8 urte)

Izartxo urez beteriko mundu berri batera iritsi zen. Izarren artean utzitako lagunak samurtasunez gogoratzen zituen Izartxok. Orain, plisti-plasta zebilen mundu berri horretan, soka batetik loturik.



ERRALDOIAK (8-10 urte)

Erraldoi da aita, Maritantai da ama, eta Patxikankailu semea. Erraldoien familia osatzen dute, eta haien bizitzan dena da erraldoia: arropak, janariak, etxeo tresnak... baita abentura hauek irakurtzean egingo dituzun algarak ere. Umorez eta fantasiaz beteriko ipuin bat duzu hau, Erraldoien bizimodua, ohiturak eta eguneroko gorabeherak kontatzen dituen eta Mikel Zarate haur-literaturako sariaren irabazlea.




TAPPER BIKIAK NEW YORK ASTINTZEN (10-12 urte)

Tapper bikiak sail arrakastatsuari jarraipena emango dion bigarren liburua da hau. Anai-arrebak New York-era joango dira oraingo honetan eta hankaz gora jarriko dute hiria.



Pertsona batek 50 tona elikagai eta 40.000 litro likido hartzen ditu bizitza osoan.



Azazkalen azpian oso bakterio eta birus arriskutsuak bizi dira. Azazkalak jan aurretik pentsatu ondo.



Gizakiaren begia oso sensiblea da. Iluntasunean kandela bat ikus dezake 1,6 kilometrora.



Gizakien organorik azkarrena burmuina da.



Lurreko lekurik hotzena Antartikan dago, Vostoken. Urteko batezbesteko tenperatura -58 gradutakoa da. Han erregistratu duten tenperaturarik baxuena -89 gradutakoa izan zen.



Egarri den gamelu batek hamar kubo ur edan ditzake hamar minututan.



Elefantearen tronpa gizakiaren eskua bezain erabilgarria da. Lurrean dagoen botoi txiki bat ere har dezake tronparekin.



Odolean ditugun globulu gorriak bata bestearen gainean jarriko bagenitu, 50.000 kilometroko altuerako dorrea osatuko genuke. Zelula horien erdia astero aldatzen dira eta segundo bakoitzean 15 milioi globulu hiltzen dira.



Doministiku egiterakoan, airea, 170 km/orduko abiaduran botatzen dugu. Estula egiterakoan, berriz, 900 km/ orduko abiaduran.



Australian, urtero, 50.000 sute gertatzen dira hango baso eta mendietan.



Antza denez gizakiak aspalditik daki eskiatzen. Norvegian eskiatzaile batek zizelkatutako harri bat dago, orain dela 10.000 urte egindakoa!



Egiptoarrek ilea kaskamotz eramaten zuten, motz motz. Badakizue zergatik? Zorri piila bat izaten zituztelako.



MUTILA ILARGIAN

Egun batean, mutil bat trenez hondartzara joan zen eta hondartzara heldu zenean bere esku oihala harean jarri eta uretara abiatu zen.

Uretatik bueltatzean putzu bat egiten zebilela erloju bat aurkitu zuen. Etxera itzuli zenean erlojuak ilargira eraman zuen mutila. Ilargian mutilak kaskorik gabe arnasa hartu zuen.

Ilargian jolasten ibili zen eta aspertu zenean mutilak bere erlojua etxera eraman zuen, erlojua gordez.

Iker Garcia



ESTRALURTARRAK



Egun batean Jon, Ainara, Iosune eta ni gelan geunden eta estralurtarrak etorri ziren eskolara. Lau lagunak ezkutatu egin ginen eta estralurtarrak gelara sartu ziren eta Iosune harrapatu eta joan egin ziren.

Ainarak esan zuen:

- Espazio-ontzi bat laga dute, goazen-.

Ainara, Jon eta ni sartu eta jarraitu genien eta euren planetara sartu ginen Iosuneren bila, eta ia-ia harrapatu egin gintuzten estralurtarrek.

Giltzak hartu eta espazio-ontzi batean sartu ginen eta gure planetara joan ginen, baina estralurtarrak jarraitu gintuzten. Orduan, zulo beltz bat atera zen eta estralurtarrak harrapatu zituen. Gu etxera itzuli ginen.

Mikel

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.
MEREZI DU...



zu margolari!